

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Lan poltsa osatzeko deialdia eta oinarriak, Kuartangoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, bitarteko izendapenaren bidez

Beharrezkoa da Kuartango Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, titularraren aldi baterako epe luzeko ezintasunagatik.

ALHAOn argitaratu zen, 2023ko azaroaren 27ko 139. zenbakian, estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko deialdia, behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez, eta jendaurrean aurkezteko epean eta orain arte ez da jaso estaturako gaikuntza duen ezein funtzionarioen eskabiderik.

Eusko Jaurlaritzaren lan poltsako kideen arteko hautagairik ere ez da jaso.

Ez dago karrerako funtzionariorik udaleko plantillan, eta, beraz, ezin da aldi baterako izendapenik egin idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10. artikulua 2. apartatua ezartzen duenez, "bitarteko funtzionarioak hautatzerakoan prozedura bizkorak erabili behar dira, betiere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak estu errespetatuta".

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua honako hau dio 1. apartatuan: "Ezinezkoa denean Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioek gordetako lanpostuak betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10.4 artikuluan jasotakoari kalterik egin gabe, toki korporazioek bitarteko funtzionario bat izendatzea proposatu ahal izango diote autonomia erkidegoari, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuta, eta bitarteko funtzionario horrek A1 azpitaldean sartzeko eskatzen den titulazioa izan beharko du."

Egun honetan, ebatzi dut onestea Kuartangoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia eta oinarri arautzaileak, l. eranskinaren arabera, bitarteko izendapena egiteko, aldeztu aurretik merezimendu lehiaketaren bidez hautaketa bat eginda eta lan poltsa bat osatuta.

Kuartango, 2024ko maiatzaren 24a

Alkatea

MIREN MEABE CARRO

I. ERANSKINA**Kuartangoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko izendapen bidez betetzeko, merezimendu lehiaketa bidez hautagaiak hautatzeko eta lan poltsa osatzeko oinarri arautzaileak****Lehena. Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da merezimendu lehiaketa bidez hautatzea Kuartangoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua, hala badagokio eta bitarteko izendapenaren bidez, betetzeko lan poltsa osatuko duten hautagaiak.

Lan poltsa osatzeak ez du esan nahi, nahitaez, bitarteko izendapena egingo denik, eta hautaketa prozesu honetatik erator daitekeen izendapenak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario izaera aitortzea.

Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitartekotasun harremanaren amaiera, honako arrazoi hauetako edozeinengatik, eta ez da konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango:

- a) Lanpostua karrerako funtzionario batek betetzeagatik, araututa dagoen moduan, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- b) Esleitutako lanpostua kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa arrazoiengatik.
- c) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzeagatik.

Nolanahi ere, bitarteko harremana bitarteko funtzionarioak izendatu eta hiru urtera amaituko da (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.4 artikulua).

Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak

Bitarteko langile baten bidez lanpostu hau betetzeko egiten da merezimendu lehiaketarako deialdia:

Lanpostuaren izena eta mota: idazkaritza, 3. mota.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailera.

Taldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 25.

Berariazko osagarria: 26.118,22 euro urtean.

Hizkuntza eskakizuna: 4 (C2), derrigortasun datarik gabe.

Hirugarrena. Izangaien baldintzak

- a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- b) Espainiar nazionalitatea izatea.

c) Titulazioa: graduko unibertsitate titulua (edo baliokideak: lizentziatura, ingeniartza, arkitectura) lortzeko eskubideak izatea edo ordaindu izana. Titulua atzerrian lortu duten izangaiek dagokien homologazio kredentziala eduki beharko dute, edo, hala badagokio, baliokidetasun ziurtagiria.

d) Bete beharreko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta eginkizun horiek betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publikoen edo autonomia erkidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez egotea epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko,

funtzionario kidego edo eskalan sartzeko edo, lan kontratudun langilea izanik, baztertutako edo desgaitutako lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko. Desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta beste estatu batean egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean ez egotea.

g) B gidabaimena izatea.

h) Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko eskalako karrerako funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, haien azpieskala eta administrazio egoera edozein izanda ere.

Izangaiek aurreko baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, eta proposatutako hautagaiak baldintza horiei eutsi beharko die izendapenaren unean.

Laugarrena. Eskaerak

Eskaerak oinarri hauen eranskinean adierazitako ereduaren arabera izan beharko dira, eta Kuartangoko Udaleko alkateari zuzendu behar zaizkio (Zuhatzu Kuartango 21, 01430 Zuhatzu Kuartango, Araba), hamar egun balioduneko epean, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta bihar ramunetik aurrera.

Kuartangoko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango dira jendearentzako zerbitzu egun eta orduetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Udalaren egoitza elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira:

https://udalenegoitza.araba.eus/portal/entidades.do?pes_cod=-1&ent_id=18&idioma=3.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako beste edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak posta arruntez aurkezten badira, eskaerak aurkezteko epetik kanpo jasotakoak onartzeko ezinbesteko baldintza izango da aurkezten den egunean bertan Kuartangoko udal bulegoetan jakinaraztea eskaera aurkeztu dela, udaleko alkateari mezu elektronikoa bidaliz kuartango@kuartango.org posta elektronikoko helbidera, eta bidalketa horren frogagiria erantsiz. Baldintza hori betetzen ez bada, izangaia ez da onartuko, baldin eta haren eskaera eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren jaso bada udalean.

Ezinbesteko baldintza izango da eskaerarekin batera sartzeko baldintzak (NANa, graduako titulua eta gidabaimena) eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duten agirien kopia aurkeztea. Eskaerak aurkezteko epean merezimenduak behar bezala justifikatu gabe alegatzea ezin izango da zuzendu.

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, lehendakariak ebazpena emango du bost egun balioduneko epean, eta onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onetsizat joko du. Ebazpen hori udaleko iragarki taulan eta Kuartangoko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, eta baztertzearren arrazoiak adieraziko da. Baztertutako hautagairik ez badago edo, egon arren, zerrenda jendaurrean jarri eta bost egun balioduneko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, ebazpena behin betiko bihurtuko da automatikoki.

Ebazpen horretan bertan, lehendakariak zehaztuko du epaimahai kalifikatzailea non eta noiz eratuko den, bai eta nola osatuko den ere.

Seigarrena. Hautaketa prozesuaren deskribapena

Hautaketa prozesua lehiaketa bat izango da, eta honako merezimendu hauek baloratuko dira:

A) Azken bost urteetan idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako hautaprobetako probaren bat gainditzea: 3 puntu. Eskatzaileak, izena emateko epean, proben deialdia egin duen organoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko beharko du hori, gainditutako proba eta hura egin zen eguna identifikatzeko datu guztiak adierazita.

B) Esperientzia. Gehieneko puntuazioa: 6 puntu.

Idazkaritza-kontuhartzaitzako azpieskalan estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan organo eskudunak egindako behin-behineko edo aldi baterako izendapen bidez aritutako hilabete oso bakoitzeko 0,1 puntu.

Estatuko, autonomia erkidegoetako edo toki erakundeetako kidego orokorretako edo administrazio orokorreko eskaletako A taldeko A1/A2 azpitaldeetan sailkatutako administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuetan, beste azpieskala batzuetako gaituentzat gordetakoetan edo estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatu gabeetan, izandako esperientzia hilabete oso bakoitzeko 0,05 puntu.

Lan egindako aldien kopurua batuko da, eta hilabete baino gutxiagoko aldiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 30 egun naturalek osatuko dute hilabetea.

Dagokion toki erakundeko idazkaritzak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da lanbide esperientzia, eta autonomia erkidegoetako edo foru aldundietako organo eskudunak emandako izendapenaren egiazko edo jatorrizko kopia ere aurkeztu behar da, estaturako gaikuntzako lanpostuetarako izendapenen kasuan, eta, gainerako kasuetan, aurreko zerbitzuak eman ziren administrazioaren zerbitzu ziurtagiria.

Ziurtagirietan, lanpostuaz jabetzeko data, kargu uztearen data, taldea, azpitaldea, eskala eta zerbitzu aldia jaso behar dira, azken hori egunetan, hilabeteetan eta urteetan adierazita.

Baloratutako beste zerbitzu batzuen aldi berean egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

C) Titulazioak. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.

Lanpostuen eginkizun bereziak direla eta, baloratu egingo da honako titulu akademiko hauek izatea edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulu horiek lortzeko baldintzak betetzea, titulazioko puntuazio honen arabera:

– Gradu titulua (lizentziatura edo baliokidea), ikasketa arlo hauetan: Zuzenbidea (3 puntu); Politika eta Kudeaketa Publikoa, Soziologia, Administrazioa eta Enpresa; Ekonomia, Finantzak eta Aktuariotza, Finantzak eta Kontabilitatea eta Kudeaketa eta Administrazio Publikoa (2 puntu). Aipatutako ikasketa arloei dagozkien graduak edo lizentziaturak unibertsitateen arloan eskumena duen ministerioaren titulazioen atalean jasotakoak izango dira.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion homologazioa izan beharko da, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (889/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitate-irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituena eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate-titulu ofizialek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten baliokidetasuna ezartzeko prozedura arautzen duena).

D) Ikastaroak eta masterrak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

Azken bost urteetan lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak edo masterrak egin izanagatik. Ikastarook, zuzenean eta ez zeharka, honako hauei buruzkoak izan beharko dute: administrazio zuzenbidea, kontratazio publikoa, administrazio publikoetako langileak, administrazio publikoen ondasunak, toki araubidea, tokiko finantza eta zerga zuzenbidea, ekonomia eta finantza kudeaketa, aurrekontuak eta kontabilitate publikoa, edo hirigintza eta ingurumena. Eta honako hauek emanak edo homologatuak izan beharko dute: Administrazio Publikoaren Euskal Institutua edo administrazio publikoen mendeko beste prestakuntza zentro ofizial batzuk, unibertsitate publiko edo pribatuak, eta elkargo ofizialak.

– Master ofizial bakoitzeko: puntu 1.

– 749 ordutik gorako unibertsitate ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,6 puntu.

– 500-749 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,4 puntu.

– 100-499 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,2 puntu.

– 25-99 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,1 puntu.

Bestelako jarduerak, hala nola jardunaldiak, mahai inguruak, topaketak, eztabaidak edo antzekoak, ez dira baloratuko.

Ikastaroen iraupena ECTS kredituetan bakarrik adierazten bada, kreditu bakoitza 25 ordu gisa zenbatuko da.

Iraupena ECTS ez diren kredituetan bakarrik adierazten bada, kreditu bakoitza 10 ordu gisa zenbatuko da.

Prestakuntza masterrak eta ikastaroak egiaztatzeko, dagokion ziurtagiria edo tituluaren kopia aurkeztu beharko da, bai eta programa ere. Ez dira baloratuko iraupen orduen, kredituen edo programaren berri ematen ez duten prestakuntza ikastaroak. Karrera, gradu edo master ofizialetan sartzen direnak ere ezingo dira baloratu.

E) Hizkuntza eskakizuna eskala honen arabera baloratuko da:

4. HE: 3,00 puntu.

3. HE: 2,50 puntu.

2. HE: 1,75 puntu.

1. HE: 1,00 puntu.

Hautagaiak egiaztatu beharko ditu hizkuntza eskakizunak.

Epaimahai kalifikatzaileak merezimenduen behin-behineko balorazioa jasotzen duen zerrenda, puntuazioaren arabera ordenatuta, onetsiko du eta Kuartangoko Udalaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan argitaratuko du.

Merezimenduen balorazioan puntuazio bera lortuz gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

– Azken bost urteetan idazkaritza-kontuhartzaitetza azpieskalako hautaprobetako ariketaren bat gainditu izana.

– Puntuazio handiena esperientziaren atalean.

– Puntuazio handiena titulazioen atalean.

– Puntuazio handiena ikastaro eta masterren atalean.

– Puntuazio handiena esperientziaren atalean.

– Zuzenbideko gradua (edo lizentziatura) izatea.

Irizpide horiek aplikatuta oraindik ere berdinketak badirau, abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera ebatziko da, Estatuko Administrazio Orokorreko hautaketa prozesuetan izangaien jardun ordena zehazteko egindako azken zozketan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako letratik abiatuta. Ondorio horietarako, lehen abizenaren buruan preposizioa edo preposizioa gehi artikulua dagoenean – «de», «del», «de la(s)» –, interesdunek transkribatu duten modua edozein dela ere, elementu horiek izenaren atzean letra xehez sartuko dira alfabetatzeko.

Izangaiak bost egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Epe hori amaituta, epaimahaiak hautaketa prozesuaren behin betiko balorazioaren zerrenda argitaratuko du.

Zazpigarrena. Zerrendaren kudeaketa

Behin betiko balorazio zerrendaren arabera gutxienez 3 puntu lortu dituzten hautagaiak osatuko dute lan poltsa.

Alkatearen ebazpen bidez lan poltsa onetsi ondoren, udalak kudeatuko du, bertan ezarritako ordenaren arabera, eta Kuartangoko Udalaren egoitza elektronikoan eta udaletxeko iragarki tauletan argitaratuko da.

Poltsa indarrean dagoen bitartean lanpostua betetzeko beharra gertatzen bada, lan poltsan dauden pertsonen eskainiko die lanpostua lehendakariak, lan poltsan duten hurrenkera errespetatuz, eta hiru egun balioduneko epe komuna emango die eskaintza onartu edo ezesteko. Eskaintza Kuartangoko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratu eta postuaren eskaintza jasotzen duen posta elektronikoa bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epe horiek.

Zortzigarrena. Dokumentuak aurkeztea

Lan poltsan puntuazio onena lortu duen eta izendapena proposatu zaion hautagaiari deia egin ondoren, hiru egun balioduneko epean, toki erakundeak izendapen proposamena helarazten dionetik zenbatzen hasita, deialdi honetan eskatutako gaitasun eta betebeharrak eta hautaketarako baloratu ziren alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta zinpeko adierazpen bat ere, honako hauek jasotzen dituen: ezintasun edo bateraezintasun kausaren batean ez dagoela eta diziplina espediente bidez ezin administrazio publikotako zerbitzutik bereizita ez dagoela. Horrez gain, eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko du.

Izangaiak ez baditu eskatutako betekizunak egiaztatzen adierazitako epearen barruan, ondoriorik gabe geratuko dira haren jardun guztiak, ezinbesteko kausa izan ezik, eta eskaeran datu faltsuak jartzeagatik erantzukizuna ere izan dezake. Halakoetan, alkateak onartu duen hurrengo izangaia izendatzeko proposamena egingo du, puntuazio hurrenkeraren arabera.

Lan poltsatik kanpo geratzeko zioa izango dira izangaiak lan poltsan parte hartzeari uko egitea, zortzigarren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea, lanpostuaz ez jabetzea eta eskaintako lanpostua betetzeari uko egitea, ez bada, azken kasu horretan, izangaia arlo publikoan edo pribatuan lanpostu bat betetzen ari dela eta hala egiaztatzen duela, edo gaixorik dagoela eta osasun agiri ofizialen bidez hala egiaztatzen duela.

Bederatzigarrena. Lan poltsaren indarraldia

Lan poltsak 36 hilabeteko indarraldia izango du, onesten denetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, deialdi bakoitzaren aurretik egiaztatu beharko da ez dagoela lanpostua behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeko interesa duen karrerako funtzionariorik.

Hamargarrena. Epaimahaia eta oinarrien interpretazioa

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: epaimahaiburuak, bokalak eta bokal-idazkariak (hitza eta botoa izango dute guztiek) eta horien ordezkoeak (A taldeko karrerako funtzionarioak).

Epaimahaiaren izendapena toki erakundeko lehendakariaren ebazpen bidez onetsiko da, izangaien zerrenda argitaratzen denean, eta batera argitaratuko da.

Izangaiek epaimahaiko kideak errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako inguruabarrak gertatzen badira.

Epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa behar bezala gauza dadin beharrezko erabakiak hartzeko. Oinarri hauetan jaso ez den guztian, gaiari buruz indarrean dagoen legeria aplikatuko da.

Deialdia, haren oinarriak eta oinarrietatik eta epaimahai kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 14. eta 46. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

ERANSKINA**Interesdunaren eskaera**

Interesdunaren datu pertsonalak eta jakinarazpenetarako helbidea (nahitaezkoak):

Izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Posta kodea:

Udalerrria:

Probintzia:

Jakinarazpen elektronikoa (halakorik izanez gero).

Gaitutako helbide elektronikoa:

Telefono finkoa edo mugikorra (nahitaezkoa):

Posta elektronikoa (nahitaezkoa):

Adierazten dut:(e) ko zenbakiko ALHAOn iragarritako deialdia ikusita, Kuartangoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia dela eta,

Honako hau adierazten dut neure ardurapean:

Espainiako nazionalitatea dudala, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Behar den besteko gaitasun funtzionala dudala egitekoak betetzeko.

Hamasei urte beteta ditudala eta ez dudala nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu.

Ez nagoela diziiplina espediente bidez baztertuta administrazio publikoen edo autonomia erkidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez nagoela epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko, funtzionario kidego edo eskalan sartzeko edo, lan kontratudun langilea izanik, baztertutako edo desgaitutako lanpostuan egiten nituen antzeko egitekoetan aritzeko. Beste estatu bateko herritarra izanik, ez nagoela desgaituta edo horren pareko egoera batean, eta beste estatu batean egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez dudala.

Eskatutako titulazioa eta gidabaimena ditudala.

Horregatik guztiagatik, bat etorritik urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoarekin, udal horretako idazkaritza-kontuhartzaile lanpostua betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozesuan onartua izateko eskatzen dut.

Data eta sinadura:

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla.

....., 20.....(e) koaren(a)

Eskatzailea.

Oharra: Eskaera honekin batera, eskatzen diren betekizunak eta alegatzen diren merezimenak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia aurkeztu behar da, bai eta aurkezten diren dokumentuen aurkibidea ere.

Eskaera Kuartangoko alkateari zuzendu behar zaio eta oinarrietan adierazitako posta helbidera edo egoitza elektronikora bidali.